

**GIZAKIAZ.**  
**SAN IGNACIO ETA SANTA TERESA. KARL RAHNER**

**1.- KARL RAHNER-EN LEKUKOA**

Karl Rahner irakasle ospetsuak zera utzi zigun idatzita: "Ignaziok askatasuna San Agustinen hirukoaren (oroimena, adimena eta nahimenaren) aurrean ipintzen duela". Filosofian eta, batez ere, gizakiaren ulerkeran, arazorik sakonena ukitzen du bere baiespenak. gogoa (*ánima*) eta bere potentzien (*potencias*) arteko hierarkia. Hauek dira Karl Rahner-en hitzak:

*"... jesuita naizenez, zilegi zait, nonbait, zera pentsatzea: gogojardunetako azken berebiziko otoiz handian, bere burua bete betean Jaungoikoari eskaintzean, Ignaziok askatasuna San Agustinen hirukoaren (oroimena, adimena eta nahimenaren) aurrean ipintzen duela. Ez dut uste esaera hori hitz aukeraketaren eta erretorikaren kasualitate hitza denik. Baina ez dut uste, ezta ere, Jesuiten teologiak hori zeharo ontzat gogoan hartu duenik..."*<sup>1</sup>

<sup>1</sup> "...kann ich vielleicht ja als Jesuit daran denken, dass in dem nüchtern grandiosen Schlussgebet der Exerzitien dort, wo Ignatius sich ganz und restlos Gott anheimgibt, die Freiheit vor dem augustinischen Trinar (Gedächtnis, Verfsstand, Wille) rangiert. Ich glaube nicht dass dies nur ein Zufall der Worthwahl und der Rhetorik war, ich glaube aber nicht, dass die traditionelle Jesuiten-theologie dies ganz ernst genommen habe, ich weiss auch nicht ..." Karl Rahner. Von der Unbegreiflichkeit Gottes. Herder. 47. orrian

K. Rahner-en baiespene hauen glosak *'Gizakia maitagogo da'* nire liburuan aurkeztutako gizakiaren ikuskera gogoratzea eskatzen du.

## 2.- GIZAKIA, SOINEZKO MAITAGOGOA

Gure gizakiaren ulerkera/definizioa honela aurkezteko guren: Gizakia soinezko maitagogo da. Eta maitari izateak egiten duenez gizaki soinezko izaki hori, *'gizakia maitagogo da'* esaten guren, soinezkoa dela aipatu beharrik gabe; hau da, izaki gorpuzdun hau gizaki egiten duenari eutsiz. Orain arte, gizakiaren definizioz<sup>2</sup> beste hau erabili izan da gehienbat, edo honen antzekoa: Gizakia *'animalia arrazoimenduna'* da. Baina apur bat arakatuz, berehala ikusten da hori definizio bat baino gehiago deskripzio orokor bat dela; gizakiaren osagaien edo alderdien ikuskera, besterik gabe. Gizakiagan gorputza eta izpiritua ikusiz esaten dugu hori. Horrela, adibidez, Kantek, zera idazten duenean: "*Natura hau bikoitza da, edo natura pentsalaria edo natura gorpuzduna.*"<sup>3</sup>. Benetako arazo animalia bat gizaki egiten duen zer hori adieraztea da. Bat bera den, banan ezin den maitagogo soinezkoan 'izaki' hitza maitari den gogoart eman, eta 'soinezko' hitza izaki bat bakar horren *izaerari* ezarri. *Soinezko* (izaera, nolakotasuna) den gizakiaren benetako *izakia* erakustea izan da gure asmoa.

Gizakiaren ulerkera egokiaren arabera giza gogo eta bere potentziak desberdinak dira. Gure definizioak arazo asko argitzen ditu.

- 1) Gizakia *maitagogo* da. Izatez da egia, ederraren eta onaren maitari. Gizakia aldaezin maitari behartua sortzen da. Maitatzeari, maita-beharrari lotuta. Animaliak,

<sup>2</sup> *'Definitu'*, "Elhuyar hiztegiak" dakarrenez, *'hitz baten esanahia edo zerbaiten izaera zebaztasunez azaldu'* da. Nik ere esanahi horretaz erabiltzen dut 'definizio' hitza, beste hitz antzeko batzuekin batera.

<sup>3</sup> "Diese Natur ist zweifach, entweder die denkende, oder die körperliche Natur." Immanuel Kant. *Kritik der reinen Vernunft*. Philipp Reclam Jun. GmbH. & Co., Stuttgart, 1998, 709.

aldiz, maita beharretik libre sortzen dira. Ez dute maitasun izpirik, ez egiaren, ez ederraren, ez ongiaren maitasun izpirik. Bizi senak gidatzen ditu bizi aldi guztietan, sexu harremanetan bezalaxe; benetako askatasunik gabe sortzen direlako; hau da, hautamenik gabe. Kaiola txikian ala baso handian libre bizi, beti eta nonahi maita beharretik zeharo libre.

- 2) 'Askatasun' hitza hitz labainkorra da. Batetik norberagan datzan hautamena da. Hori da egia nagusia. Gizakia hautari da, bere izate muinean kausalitate printzipiotik askatuta ari da, zeharo gainetik. Bere hautatzeko mena, bere ezagutari eta bilari -hitz batez, maitari- izatea ez dago kanpoko ezeren eta inoren menpe. Espetxeratuta -inolako askatasunik ezean- bizi ala munduko nagusi jardun, hautari da beti, besterik ez bada bere gogo muinean, bere egoera onartuz ala ez onartuz. Hauta aukerak murrizten bazaizkio, gizakia ez dago konforme, bere hauta aukera osoa berreskuratze jardunean ariko da. Eragozpenen menpetik askatuta jardun ahal izatea hautatuko du beti. Hautamena da askatasuna eskuratu nahian ari dena. Maitari izatearen hautamena beti gidari.
- 3) Gizakia maitagogo da. Ederraren, egiaren eta ongiaren maitari -ezagutari eta hautari- da. Eta bere maitajardunean, adimena, nahimena eta oroimena erabiltzen ditu askotan. Maitagogo den gizakia da adimena, nahimena, eta oroimenaren jaun, nagusi, agintari, erabiltari. Gizakia bizi baldintzen hautari da, eta egoera/lotura ez atseginetatik askatzea hautatzen du. Egoera orotan gogoa da adimenaren, nahimenaren eta oroimenaren jardunen hautari. Gogoa ezagutari da, azterlari da, maitagarri diren aukera guztien bilari.

### 3.- SAN IGNACIO

San Ignacio gure tesiaren aitzindari argia da. Bere 'Gogojardunak' liburuaren giza ardatza, hasieratik amaitu arte zera da:

"... askatasuna San Agustinen birukoaren (oroimena, adimena eta nahimenaren) aurrean ipintzea". Argi laga behar da San Ignacioren baiespen hori ez dela, ez, "hitz aukeraketaren eta erretorikaren kasualitate hutsa", Karl Rahner-ek esanari eutsiz.

Loiolako S. Ignaciok argi eta garbi egiten du bereizketa hori. Batetik gogo (ánima) dagoela eta bestetik gogoaren potentziak (adimena, nahimena, oroimena) daudela dio.

San Ignacio ez zen izan filosofian oso aditu, baina bai gizaki ezagule aparta, bere oinarrizko 'Ejercicios Espirituales' liburu osoan zehar erakusten duenez. Maisu oso handi, esango nuke nik. Ikus ditzagun bere liburuaren hasieratik amaiera arte egiten dituen gizakia eta gizakiaren potentzien arteko bereizketaren baiespenak.

Hasieran bertan gogoaren gogoko denaren eta jakitearen arteko bereizketa eginez hasten da.

- 1) *"porque no el mucho saber barta y satisface al ánima, mas el sentir y gustar de las cosas internamente."*<sup>4</sup>

Eta geroxeago,

- 2) *"El primer punto será traer la memoria ... y luego sobre el mismo el entendimiento..., luego la voluntad..."*<sup>5</sup>

*El segundo: hacer otro tanto, es a saber, traer las tres potencias sobre el pecado de ..., trayendo a la memoria ..."*<sup>6</sup>

Aurrerago

- 3) Bizi hautaketak zuzen eta ongi egiteko jardunak aurkezterakoan, hiru aukeratze modu aipatzen ditu. Lehena, Jaungoikoaren dudarik gabeko eraginez aukeratzen dena "... sin dubitar ni poder dubitar." <sup>7</sup> Hirugarrena,

<sup>4</sup> San Ignacio. *Ejercicios espirituales*, 2.

<sup>5</sup> E.E., 50.

<sup>6</sup> E.E., 51.

<sup>7</sup> E.E., 175.

"usa de sus potencias naturales libera y tranquilamente" ... "...discurriendo bien y fielmente con mi entendimiento...".<sup>8</sup> Eta bigarren modua, bien artekoa da; ez Jaungoikoak eraginda eta ez adimenaren laguntzaz egiten den hautaketa. Guretzat oso argigarria dena:

"... cuando se toma asaz claridad y cognoscimiento por experiencia de consolaciones y desolaciones, y por experiencia de discreción de varios espíritus"<sup>9</sup>

Eta liburuaren amaieran Karl Rahner aipatzen duen bilduma:

- 4) "Tomad, Señor, y recibid toda mi libertad, mi memoria, mi entendimiento, y toda mi voluntad..."<sup>10</sup> (Karl Rahner-ek aipatzen duen bakarra).

Beraz, nire iritziz, argi azaltzen da S. Ignazioren esan haue-  
tan eta beste batzuetan, *gizakiak bere zer guztiak, bere abal-  
men guztiak* erabili, eskaini ('traer', 'usa', 'tomad', 'recibid')  
egiten dituela. Eta aukerarik garrantzitsuenak egiteko modu gi-  
zatiar sakona (aipatu dugun 'segundo tiempo'-koa) erakusten  
eta eskaintzen duela. Hau da, begiratu eta aztertuz zein era-  
baki den gizakiarentzat *gogokoa*, *gogoaren* bakerakoa, *gogo-  
aren* pozerakoa, *gogoa kontsolatzen* duena. Ez arrazoimenez  
aurkitua, ez Jaungoikoak emana, zuzen zuzenean gogoaren  
egoerari so eginez baizik, zein bidetik joatea zaion gizakiari  
gogoaren gogoko, argigarri, pozgarri.

Horrela, gizakiaren ezaguera hutsetik begiratu, S. Ignaciok  
nolabaiteko fedez estalita erakusten dizkigun giza aukeraketa  
(*discernimiento*) ere gizaki orori dagokio. S. Ignacio-ren 'kon-  
solazio' eta 'desolazio' hitzak zera esan nahi dute: gogoko  
den, gogoari zeharo dagokion, pozerako den, maitasunezko  
den giza esperientzia den; ala gogoari ez dagokion, maitasuna-  
ren aurka den zerbaiten gogo bizikizuna den. Ez hitz batek eta

<sup>8</sup> E.E., 177

<sup>9</sup> E.E., 176.

<sup>10</sup> E.E. 234.

ez besteak, ez dute zerikusirik adimenaren, nahimenaren eta oroimenaren jardunekin. S. Ignacioren 'discernimiento de espíritus' azterketa eta erakusketa, erlijiozko arnasa utziz eta gizakiaren giza ulerkerara lotuz, potentziengandik desberdin den, nagusi den, agintari den, zuztar den gogoaren gorabehera gizatiarren hausnarketa da.

### 5.- SANTA TERESA

Santa Teresak zoragarri biribiltzen ditu San Ignaciok esanak, gogoaren (*alma*) eta bere *potentzien* arteko bereizketa ezin garbiagoa eginez: "*También me parece que el alma es diferente cosa de las potencias y que no es todo una cosa; hay tantas y tan delicadas en lo interior, que sería atrevimiento ponerme yo a declararlas.*"<sup>22</sup> Argi bereizten du arima (gogoa) eta potentzien artean, potentziek parte hartu gabe ere (*dormidas, muertas, suspensión de, estorbo, sin libertad, se pierden,...*) arimaren ariketa propioak onartuz, maitajardunak hain zuzen.

Gure tesiaren aitzindari hauen arabera, emaila (*eskaintza egiten duena*) dago batetik, gizakia; eta bestetik gizakiaren potentziak (*memoria, entendimiento y voluntad*). S. Ignaziok argi eta garbi onesten zituen jardunbidetzat Santa Teresak, geroago, zehatz-mehatz bereiziko zuena: gogoa (*alma*) batetik eta bere potentziak (*potencias*) bestetik.

Askatasuna, hobeto esan, hautamena gogoan datza, eta ez bere potentzia diren adimen, nahimen eta oroimenean. Gora-go eta aurrerago daude. Eta bere potentziak gogoaren agintean erabiltzen eta eskaintzen ari den gizakiak zerbait ona dena hautatzen eta egiten ari dela daki. Hau da, bere adimenari galdetzeke, bere nahimenaren joerei so egin aurretik, bere oroimenaren edukiak gogoan hartu ezcan ere, gizakiak badaki zer den ona: zehazki, maitari aritzea. Potentziak erabiltzen hasi

<sup>22</sup> SANTA TERESA DE JESÚS.- Obras completas.- B.A.C. 1967.- Moradas séptimas, pag. 440. — Hamaika karmeldar izango da Santa Teresaren erakustaldia nik baino askoz hobeto argituko litzukeena.

aurretik da hautari, aske, libre. Gizakia gauza da ona hautatzeko. Eta, zehazki, bere potentziak maitajardunari egokitzean, maitatzearen menpeko ipintzean, ona egiten ari dela daki, zuzen jokatzen diharduela, bere izana osatzen, gogoaren benetako askatasunez.

#### 6.- KARL RAHNER-EN HITZ BATZUK

Aipatu dezagun berriz, amaitzeko, Karl Rahner pentsalari ospetsuak aipatu dugun S. Ignacioren azken testuari ("*Tomad, Señor, y recibid ...*", alegia) egin zion glosa:

*"...Ez dut uste esaera hori hitz aukeraketaren eta erretorikaren kasualitate butsa denik. Baina ez dut uste, ezta ere, Jesuiten teologiak hori zeharo ontzat gogoan hartu duenik..."*

San Ignaciok bere garaian Elizak ontzat zerabiltzan filosofia fundamentuak onetsi zituen. Filosofia ikasten ari nintzen garaian ere Karl Rahner-ek san Agustini erantzen dion hirukoa zen ardatz. Baina Ignazio gizaki ezagule sakon sakona izan zen, Santa Teresa geroago bezalaxe. San Ignacio eta Santa Teresa ez ziren ausartu garai zorrotz haietan inolako teoria berririk eskaintzen. Baina gaur lasai esan dezakegu filosofari guztiak baino gizakiaren ezagule argiago izan zirela. Ez zioten gizakiari filosofiatik begiratu, gizaki gisa gizakiari berari baizik, bere bizitza gogo muinean.

Karl Rahner-en esaera glosatuz, Loiolako Ignacioren baiesperen horiek ez ziren, inola, hitz aukeraketa edo erretorika; bere '*Ejercicios Espirituales*' liburu osoaren filosofiazko bizkar-hezur sakon/isila baizik. Askatasuna (hautamena) beste hiru potentzia horien aurrean eta gorago ikusi zituen Ignaciok, zalantzarik gabe, hasieratik amaiera arte inongo etenik gabe, Santa Teresak bezalaxe. Liburu honi euskaraz eman izan zaion izenburua ('Gogojardunak', alegia) oso egokia da. Bere gogo barrenean gizakiak dagian ariketa gogojarduna da, arrazoiketarengandik argi bereizi behar dena, nahasketarik gabe.

**7.- FILOSOFARI ETA FILOSOFIA GUZTIEN GAINETIK**

San Ignazio eta Santa Teresaren argitasuna gizakiari buruzko azalpenetan (nik *gizakia maitagogoia da* esanez denon gogora ekartzen ari naizena), benetan jakingarria da. Gizakiaren azterlari, ezagule eta erakusle sakon, oinarritzko izan ziren. Horregatik daude gizakiaren ulerkeran filosofari eta filosofia guztien gainetik, inongo harrokeriarik gabe. San Ignacio eta Santa Teresaren gizakiari buruzko irakasgaia etika unibertsalaren argi bizia da, benetako jardunbideen -maitabideen- azalpena, gizaki guztien eta gizartearen norabidea markatuz gizadi osoa garai berriaren hasieran ipiniko duena. Bere izate muinean gizakia arrazoimendun baino askoz goragokoa da. Adimenaren, nahimenaren eta oroimenaren gainetik gizakia MAITARIA da. Hori da gizadiaren eta gizarte guztien hitz nagusia.

*Jenaro Garate - 15277363g*